

# Adierazpena

Europako gaztetxo eta nerabeak gara, eta hezkuntzaren bidez justizia eta elkartasuna zer den erakutsi eta balioak irakasten dizkigute pertsona onak izateko.

Espero dugu bizi garen jendarteak balio berberak izatea.

Hori horrela, COVID-19aren aurkako txertoak nola ari diren banatzen ikusteak (ez leku guztietan, oso garesti...) pena ematen digu .

Ez gara etorkizuna, oraina gara, eta horregatik hau eskatu nahi dizuegu:

Ahalegin global bat egin behar da, eta, horretarako, koordinatua egon behar da. Ezin da Covid pandemiarekin bukatu, herrialde bakoitza bere kabuz aritzen bada. Elkarri laguntzen badiogu eta denak elkarrekin lan egiten badugu, bizitza asko salbatuko ditugu.

Covidak hu(n)kitzen gaituenez, gure beldur guztiak elkarrekin gainditu ahal ditugu, pertsona guztiak lagunduz, mugak eta etsaitasun guztiak suntsituz.

Errepikatzen digute Garapen Iraunkorraren Helburuak bete behar direla, atzean inor utzi gabe. Galdetzen diogu geure buruari non geratu den Garapen Irakurraren 3. Helburua ongizatea eta osasunari dagokiona, kalitatezko txertoak leku guztietan eta denoi banatzea ezartzen duena.

**Mundu berde, osasuntsu eta justua izatea lortu nahi dugu.**

**Inoiz baino azkarrago asmatu dira Covid-aren kontrako txertoak eraginkorrak dira. Harritzen eta haserretzen gaitu jendea txertoa jarri nahi ez izateak. ZAINTZEN GARA BESTEAK ZAINTZEKO.**

**Txertoei buruz informazio gehiago behar dugu jendeak txertatzen animatzeko.**

**Eskatzen dugu jendeak txertoa jartzea izurriteari bukaera emateko.**

**Txertoak ez dira berdin banatzen herrialde garatuetan ala garapen bidean dauden herrialdeetan. Txertoak mundu osoko baliabide publikoak izan behar ziren, eta horrela banaketa zuzena izango zen.**

**Gainera, herrialde batzuek gehiegizko erosketa egin dute eta soberan dituzten txerto horiekin negozioa egin nahi dute. Ezin diegu hori egiten utzi.**

**COVAX izeneko elkarte sortu berriaren helburuak hauxek dira: txertoak herrialde guztien eskura egotea, hornidura nahikoa izatea eta banaketa justua izatea. Txertoak izan beharko ziren mundu osoko pertsona guztientzat, eta ez salgai bat.**

**Botika-industriek COVAX-rekin kolaboratu beharko zuten, patentei**

behin-behinean uko eginez, eta horrela txertoen banaketa hobea izango zen.

**Bizitza guztiek balio bera dute; justizia kontu bat da.**

**Mesedez eskatzen dizuegu laguntzeko adierazpen hau sinatuz.**

(Sanduzelai ikastetxe publikoko 6. mailakoek egindako itzulpenean oinarrituta)